



ANTON LANDAJUELA


(G. B.)

- GUDARI ZARRA
- ABERTZALE SUTSUA
- ALDIZKARI ONETAKO
IDAZLEA
- GURE LANKIDEA

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Confie en nosotros

Zenue nrotea gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**

GALTZAILLEAK!

(Vae victis!)

GUDARI ZARRAK

Gure Anton, Gudari Zarra, joan jaku! Eta joakera onek ainbeste gudari izandakoen oroipena dakarsku burura.

Areik bai gizon adoretuak eta benetako abertzaleak!

Gudara joan-bearra izan eben eta ez eurak billatu edo asmauriko gudara. Goliat zitalak Dabid gazte adoretuaren aurka ezarri eban gudara baiño.

Eta maite eben lurraren alde burrukatu ziran sendo ta gogor: Arrarik arra aldeztu ta zaindu eben gure aberriaren lurra!

* * *

SANTOÑA'RA

Baiña ez zan naikoa gogo sendoa. Arerio ugaritsuagoak egunerik egunera gure erriak artzen ebazan eta samintasunez beterik eusko-lurra galdu ondoren, eldu ziran Santoña'ra. Eta an itun-antzeko bat lenengo eta gero saldukeria ta... dana.

Nok idatziko dau gure Erriaren egizko kondairea? Nok egingo dau gure Erriaren samintasuna agertuko dauan olerki negartia?

* * *

ILLAK ETA BIZIAK

Gure baserrietako soloetan lurperatu ziran gorpuak, al zan eran zaindu ziran zaurituak, ainbeste azur-ausi eta lanerako almen barik eta ezelako sari barik geratuak!

Gorputza osorik eukenak, espetxerik espetxera «odisea»rik larrienean. Eta Espetxeetako gau luzeetan noiz eriotzarako deia entzungo, ate ertzetatik eriotzara eroiezanai dardaraz begira. Areek bai gabak eta egunak!

Eta bitartean etxeokak, emaztea ta umeak edo aita-ama zarrak gosez, arduratuta, zelan lagundu be ez ekiela.

* * *

ISILTASUNA

Isillik egon bear, gaiñera! Aberri-miñak izten dauan barruko samintasun larri ta urduria be ezin agertu.

Isillik Idazleak, etxe bazterreko gelan idatzi ta idatzi, elertiaren isil-une negargarria zelan edo alan betetu-gurean.

Isillik errian, erriaren arerio ziranen zarata aundiak entzun eta entzun!

Isillik eta lotsatuta, gaiñera! Galtzailleak zirala entzun bear!

* * *

EZPATEA TA IDAZKORTZA

Baiña erri bateri, bizi gura dauan erri bateri, bizia kentzea ez da ain erreza, zazpi bizi dituan bizidunaren antzera berbiztu egiten dira erriak!

Eta Euskalerriri be etorri jako berbizkundearen itxaropena. Ez da alperrekoa izan burrukea.

Ondo be ondo bete dau Anton Landajuela'k bere egitekoa, antxiñatik oitura izan dan lez, ezpatea bear danean ezpatea eta idazkortza bear danean idazkortza, baiña beti erriaren alde.

* * *

ESKERRIAK ASKO!

Eta ez beti dizdiz aundiko lanetan! Kaian zamatzaille! ZER aldizkarian aleak bialtzeko zuzenbideen ezartzaille! Lan apalak. Eta bitarteetan asti-aldiak artu eta edazle.

Gure Landajuela'k ez dau egin garautegia, baiña bai bere aleak zintzo ekarri garautegi ori osotzeko. Eskerrik asko, Anton! Betiko zoriona izan dagizula!

ANDERTXU (GABON IPUÏÑA)

«Ganeko», menditar-tean egoan baserri -etxean, Txomin eta Josepa senar- emazteak euren amar urtedun semetxoagaz bizi ziran. Semetxoaren izena Andertxu.

* * *

Egun baltz baten inguru-etako erri ta baserrietara gaixotasun ilkor bat eldu zan, Gaixoak egozan etxeetara iñortxo bere ez zan urreratuten, esandako gaixotasun ori oso irantzikorra zalako.

* * *

Dana zan iltea dana negarra. Ara baña, gutxien uste ebenean gaixotasun bildurgarri ori, Ganeko baserrira bere eldu zan.

Txomin eta Josepa, biak batera, gaixotasunak jo, ta oeratu ziran.

Andertxu bakarrik osasuntsu etxe aretan egun bat eta beste bat etorri. Gure senar-emazteok bakardadean eta iñoren laguntasunik baga, geroago ta txartoago ioiazan eta azkenez goiz batean, itxartuterakoan, Andertxok bere aita-ama maiteak ilda gogorturik aurkitu zituan.

* * *

Mutikotxoaren negar ta deadar-rak. Atartera urtenda alde guztietara deika egoan, baña iñork bere entzun ez, Ganeko beste baserrietarik urrin be urrin egoalako.

Illuntziruntz samin ta goseak eragin da norbaiteren billa urten eban etxetik.

Ez eukan seniderik. Nora joan be ez ekian umezurtz errukarriak.

Or doa gaixoa illunetan, or jausi emen jagi edurra mara-mara alde guztiak zurituten zitularik.

Eldu zan nekez «Bengoetxe» baserriraiño. Ate ondoan kikildurik iñoan bere kautan: Deituko dot? artuko ete nabe?

Orduan Bengoetxeko bee leioa zabalik egolako abesti au entzun eban «ATOR ATOR MUTIL ETXERA» Neuri deika ete dagoz?, eta ausartu zan atea jotzen.

Bengoetxeko senar-emazteak euren seme alabakin su ederraren inguruan, Gabon abestiak abestuten egozan.

Ate jotea entzutean, ixildu ziran eta etxeko andreak badiño:

—«Nor ete da gabaz ate joka datorrena?»

Eta arin baño ariñago urten eban leiorea ta itandu:

—Nor da?

—Neu, erantzun eban Andertxok abots motel motelagaz, «GANeko» Ander. Aita eta ama il dira, ta emen nator otz eta goseak, eraginda, zuenera. Sartu neiteke?

—Itxaron apur baten esanda, etxeko andrea joan zan arin arin barruruntza eta esan eutson senarri:

—Ganeko Andertxo da, gure billa datorrena.

Ezelan bere ez, erantzun eutson senarrak, orrek gaixotasun txarra ekartea ba-leiteke eta beragaz gu guztiok gaixotutea.

* * *

Baña andreak:

—Gau onetan, Jesus jaio zan gau onetan, zelan ez lagundu Andertxori? Berak lagunduko dauku. Gau zoragarri onetan artu egin bear geunke, umezurtz gaixoa, ori alkar maitesanunak aginduten daualako.

Azkenez danak artu eben on-tzat eta sartu eben eskaratzera Andertxo.

Aren itxura itxusia! Dana bus-tirik, belaunak ikaraz eta agiñak dardara baten. Etxeko semetxo, baten jantziakaz jantzi eta sutondoan ipiñi ebenean beste bat irudien Andertxok, gaztaña zimel eta beste gabon janariak jan da gero Andertxok negar egin arren gabon abestiak abestuten jarraitu eben guztiak.

* * *

Bai ta etxe artan maitetasuna egolako, Anderri esan bere Jesus maitasunaren iturria, sustarra dalako:

«Andertxo, emendik aurrera gure seme bat lez izango zara. Ez negarrik emengoa zara gaurtik. Oneik gure seme alabok izango dira zure nebarrebak. Orixe da Jesus'en aginduten dauana-ta.

Ta esan ta izan, egun orretatik aurrera, Andertxok senar emastei aita ta ama esaten eutse bai ta bakean pozik bizi zan gure Ander Gixajoa Aita ama ta nebarreba barriakin.

Ordez Jaunak zaindu eban Bengoetxe baserria.

Gaixotasun bildurgarria etzan urreratu etxe aretara. GABON GABA MAITETASUNAREN GABA. Zorionekoak maitetasun ori euren bizitzan darbillenak GALLASTEGI'TAR.

KAULDIK

BERAREN BILLA

AU DALA AU BAKEA
BERA AURKITZEAN
BIOTZA DOT URTURIK
NEURE BULARREAN.
UMETXO EGIN ZARA,
GAUZA MIRAGARRI
ZUREKIN ASETZEN DA
ZORION EGARRI

EZ NEUKE NAI IZATE
MUNDUN JAKITUNA
BAKAR NAI DOT EUKITE
DANA ZARAN JAUNA.
ZU ZARA ZORIONA
ORI NIRI EMON
AZKEN ORDUAN BARDIN
BETIRAKO GABON.

JOAN DIRANAK

XABIER PEÑA

Azken-aldietan joan jakuzan euskal idazleai buruz gogorapen biozkor batzuk aitatu gura dodaz.

Nire adiskide miña izan zan Xabier Peña'ren eriotzatik gaurdaño biotz-minduta aurkitzen naz, eta ez da gauza miragarria bion arteko artu-emonak begiratu ezker.

Ogei ta amar urte gitxienez dira, eskatu eustan beragaz batera Bilbo'ko Erribera kalean euskerearen alde jarduteko. Orduan ez egoan batuaren arazo mingarririk.

Nik beti esaten neutsan ezetz: Akademi barria nebala, prantzesez eta inglesezt «Laneguín» jardun bear nebala...

Parkatu, mesedez, nitzaz ainbeste ba'daragoioit, zeaztasun batzuk egikeran joan jakuzan euskal idazleai buruzko azalpen onetan: Bostakaz artuemonak izan dodaz, euretariko bigaz barnekoiagoak izan arren.

Gero, azken-urteetan Peña jaunagaz alkar-izketa ugariagoak, bai bere lan-etxean «Seguros Bilbao» izentaurikoan, bai «Euskerazaleak»en bai bere Indautxu'ko etxe-bizitzan, baita urtero Zornotza'n «Olerti Egunetan» be eta azkenez nire Bilbao'ko bizitokian, Karmelo Jil Kalean.

Etxera nire ikasle berezientzat eskatzen neutsozan kasetakaz etorten jatan.

Orain zazpiren bat urte dirala, gogoratzen naz, urte orreitan Bilbo'ko Popular Banketxetik urtenaz batera, beragaz topo egin neban.

Aspaldi baten lez, orduan azken-aldiz izango ba'zan be, alaikiro ta irribarrez adierazi eustan ia al izango neban beragaz bat bere irakas-lekuan, Elkano Kalean euskerazko irakastaldiak emon.

Tamalez, orduan be, irakaste-orduen goraberak zirala-ta, ezina zala esan bear izan neutson.

* * *

PLAZIDO MUJIKA

Jarraian beste idazle euskotar jator batzuk aita-tzea nai neuke.

Oneik be oraintsu gure artetik joan jakuz eta euskal elertian mesedegarri agertutakoak doguz.

Aita Plazido Mujika ez neban asko ezaguntzen. Bere Noni ta Mami eleberriaren itzulpena irakurria neban eta birritan beragaz Loiola'n mintzatu nintzan eta oso gogokoa neban. Zubikarai jaunak beratza oraintsu argi ta zeatz idatzi dausku.

* * *

NIKOLAS ALZOLA

Nikolas Alzola, Santiago Ikastetxan 1968'n ezagutu neban, an bizkaieraz bertako gastetxuai irakasten neuntsen urtearoan.

Bertan jardunaldiak batik bat orain euskerazaintzakoa dogun anai Iñaki Olabeagaz'gaz izaten neban.

Alzola zanaren idaztiak euskera garbi ta errikoian idatziak ezeze oso interesgarriak dira.

* * *

MANUEL ESTONBA

Gure Urkiola'ko misiolari irundarra ta euskal idazle jaiotako garbi ugaritsua izan genduan Estonba'tar Manuel'egaz be izan neban artu-emonak eta alkar-izketa mamintsuak.

Geienak, Aita Plazido Mujika izan ezik, neure adin-ingurukoak izan dira eta euren eriotzaz euskerak eta bizkaiera euskalkiak bereziki, asko galdu dau.

* * *

ANDONI LANDAJUELA

Oraintsu, azkenez, Landajuela'tar Andoni adiskide miña joan jaku.

Ia astero «Euskerazaleak»en alkar ikusten izan dogu.

Biotz osoaz, illero, bizkaieraren alde ZER'en idazten izan dausku.

Lenengo AGUR aldizkarian idazten eban eta Jon Beiztegi'gaz, Manu Ziarsolo «Abeletxe»gaz eta Bilbo'ko Beiztegi'ren txirrinkola-dendan tril egiñik alkar ikusten genduan.

Gudaldian bera ta Beiztegi, nire lengusua ta euskal gudarosteko gudaiburu zan Jenaro Arregi'gaz ibilliak ziran.

Guzti onei buruz bein baiño geiagotan mintzatu izan gara.

GAZTEAI

Bost idazle euskotar oneik zeozelan goraitatzea izan da nire asmoa.

Beste batzun eskuetan izten dot gai sakonagoak eurai buruz idaztea.

Bitartean dei bat idazle gazteai, orrean urratsak gogoz jarraitu dagiezela.

ARREGI'tar Josu'k

EUSKARA, JAIKI ADI PLAZARA!...

—Amar plaza baietz!...
Bergarako Dema: 9-11-78

*Euskara,
zer zara?
Idi-aposturako gaia?
Mando-arteko dema?
Egin dezatela dema
eurak,
giza-dema bada-ta.
Baiña, Euskera
zu zer zera?
Jai-arratsaldeko festa?
Mandoen indarra
proatzeko dema?
Egin baietz amar plaza?
Euskera nerea,
Zergaitik
eantsi dizute alperrik
orrelako karga?
Il-zorian zaudela
diote dotore jaunaren inguruan
dabiltzan akolitoak.
Zer dala-ta
eantsi dizute orrela
Hatxe zarra
alperrikako zama?
Lenbailen gorde zaitzaten
[artxiboan
galartsuetan,
diskoetan,
kaseteetan
lurperatu nai zaituzten
[enterradoreak?
Ilda gero
edo bizirik zaudela,
aterako dizute muiña,
gibela,
egiteko salda bero.
Ikullu-usaiña
dariozu sortzetik...
Zurerik ez dute beste akatsik
ezagutzen, baiña,*

*robot berria
bear omen dute
ariña,
garbia,
korta-usaiñik
gabea...
Beuren burutik
erdia.
Euskera zaarra,
konbeni zaie
zu iltzea.
Zatiak
bear omen dituzte
zureak
sortu aal izateko
robot berria,
usai-gabea
bizi-gabea...
Frankestein berri auen
mistro zatarra.
Requiescat in pace
Euskera zaarra,
ez bait dezu jaso oraindik
baserri-maillarik...
Zurekin badoa
iñularrean
Euzkadi osoa...
Millaka urteko kultura
gordailloa,
aspaldiko kutxa,
bota dute kanpora,
zaarra bait da, zaarra;
txatarra besterik ez, txatarra...
Pipiak jota omen,
pipiak jota,
kalera bota
barruan daraman
aberastasunekin batera.
Arrian arotza,
burnian arotza,
egurrean arotza...
Arri-arotik arriak lantzen*

*arotza,
burni-arotik burnia lantzen
arotza,
egur-arotik egurra lantzen
arotza...
Arotza, beti, arotza...
Amar milla urteko kulturaren
[kutxa,*

*Euskera zaarra,
kultura berriaren aurzaia.
Euskera berria
probetetan sortua?
Amandre zaarra bezelako
aurzai egokia
ez dezu bela topako
Euskerazaindia.
Zergaitik beartu iltzera
oraindik bizi dan Euskera?
Gorpua, ikerketarako gaia?*

* * *

*Olimpo'tik turuta-otsa:
—Madarikatoak
Euskera zaarraren biotza
bizirik gorde nai duten
tonto-lapikoak.
Iltzera zoazte idazle bezela,
Euskera zaarrakin batera.
Arranoak gera gu, arranoak;
zuek, berriz, eltxoak...
—Eltxoak gara gu, eltxoak,
arranoak zuek, arranoak;
baiña, eltxoa begi-barruan
sartzerakoan
begiak gorri zaizkizu, begiak,
begietan odola dezu, odola,
bista-gabeko arranoa
gelditu zara,
bestela,
ez zenduke ilko Euskera.*

A. ARRINDA

ANTON LANDAJUELA

(G. B.)

EUSKEREA MAITE

Il yaku Anton gure lagun eta euskaltzale zintzoa, zintzorik ba'da. Gizaki bakotxak, adiñekoa izanik batez be, bizitzan zear eratutako barru-izaera bat lortzen dau, amesak eta elburuak sendo sustraituta dagozala.

* * *

GUDA - ALDIAN

Landajuela ta Barrenetxea'tar Andoni, Arratia'ko Igo-ren 1914'ko Gabonilla'ren 4'gnean jaiotako zan, eta sendi euskaldun jatorreko babesean urteak igaro yakozan.

1936'ko matxinadeak, soldaduzkan jarduten ebalu erbestean artu eban.

Txapelgorriekin Euzkadi garaitzera bialdu eban. Anton'ek baiña, ezin egikean jasan beretarren aurka burrukan egitea, eta beti iges egiteko zain egoan.

1936'ko Dagonilla'ren 19'gnean, Endarlatza ta Iranzu arteko Arlaiz mendian zala, gaua ustiatuz otadi ta trokantan zear iges egin eta noizbait anaiakana eldu zan.

* * *

ZAURITUTA

Bereala Ibaizabal batalioian gudari sartu zan. Luzaro barik, baiña, gudari bikaiña zala erakutsi eban, eta «Rebellion de la Sai» batalioia eratu zanean, onetan teniente izendatu eban.

Emen, ondo merezi ebalu emondako zeregin barria erakutsi eta olan bere erriaren alde ekin eban, eta iskillu —indarretan askozaz aaltsuagoa zan etsaiari jarkiten eutsola apurka-apurka atzera egiñaz, noizbait Artxanda'n aurkitu zan.

* * *

ERIOZARA EPAITUA

Bilbao'ko mendi onetan burruka izugarria izan zan, eta etsaiari aurre egiten eutsola, Anton zaurituta gertatu zan.

Artxanda'tik atara eta Santander'ko Cicero erriko eritigira eroan eban.

Emen osatzeko zorian zala, italiarrak sartu ta Santoña'n baitu eban.

Andik laster Dueso'ra eroan eta guda —auzitegian eriotz-epaia emon eutsan.

Emendik idazki bat bialdu eutsan amari auxe iñotsola: «Agur amatxu. Ez dakit noiz arte; epaia beteko ba'lituz goiko zerurarte».

* * *

ESPETXEAN

Arrezkero, Dueso'ko eriotz-epaituen sailan egon zan, Ajuriagerra, Azkue, eta beste askorekin.

Bere egoera berezia zan. Beste aldetik iges egiña zan ezkerre, erraza zan baten batek salatu egian, eta au gerta-tzekotan, bereala eriotz-epaia beteko zan.

Emen egoala, Azkue beste amabostekin Urrilla'ren 15'gnean su-iskilloz garbitua izan zan. Eta gero beste ilketak jazo ziran.

Izugarria zan geletan giltzapetuen egoera larria, gabean gelak zabaltzen zirala an-emen, dei egiñak eriotzara eroateko.

* * *

JAZOKIZUN NEGARGARRIA

Azaltzekoa da gudari bateri jazo yakona.

Mutil au zaurituta egoan zorrea etenbake eriola, min jasangaitzetan bizi zala.

Oikoa zan España'ko ikurriña goizalde orotan jasotea eusko gudari-talde bat beartua zala ori ikusteko.

Egun baten, jai amaituta, gudari zuritua aurreratu zan oiuka: «Gora Euzkadi, Viva la Republica!» Urrengo goizean, ikurrin espainarraren jasotea amaituta, bere gudari-kideen aurrean tiroz il egin eban.

* * *

ZAMALARI

Urtea amaitu barik, Bilbao'ko Larrinaga espetxera eriotz-epaituekin aldatu eban.

Emen bai aldi larriak! Gaba elduta, gela-arteko igarobidean argiak iziotzen ziran, eta auskeratuak ataraten ziran Derio'n erailteko. Beste batzuk espetxean bertan urkatuak (garrote vil) ziran.

Gabeko ataraldia amaituta, igarobideetako argiak amatau egiten ziran. Anton atezulotik zain egoan, eta orduan auxe esaten eban: «Onetsi bedi Jaungoikoa».

Egoera onetan egunak eta illebeteak igaro ziran, eta 1938'ko Garagarrilla'ren 25'gnean Burgos'ko espetxera bialdu eban, eta emen zorritz eta imitzez janda, goseteari jarraipena emon eutsan.

Noizbait bost urteko espetxaldia jasanda gero, etxera biurtu zan. Gero, Bilbao'ko portuan zamalari sartu zan.

* * *

AGUR ANTON

Anton joan yaku, abertzale zintzo ta benetako euskaltzale beti iraun ebana.

Esatera batek diño, ildakoek aberria egiten dabela. Olan izango da, urrean, baiña gure biotzak samiñez beterik aurkitzen dira.

Agur Anton, eta gero arte.

ZUBIRI'tar IÑAKI

GALIZIA'RA JOAN-ETORRI BAT

Aspaldiz genduban Galizi pizkat ezagutzeko amets bizia. Sarritan entzuna genduan lurrez eta iza-keraz Euzkadi'ren antz aundikoa zala; ortik sortua zan geien baten lurralde ori ikustatuteko ametsa.

Eta, igaro barri dogun udan izan genduban bertara joateko unea ta aukerea eta joan egin gintzazan, nai-ta egun gitxirako baiño izan ez.

* * *

Galizi lurralde zabala da eta, nai-ta lau egunean ea iru anei ta bosteun aneurkin (kilometro) ibilli, ezin izan genduan dana ikusi, ez orixe! Baiña bai ikusgarri diran baster eta inguru asko.

Gure erriko salerosleak gertutako txango bat zan da, Garilla edo Uztailaren 23'en urten gintzazan berebil aundi apain baten, ururogei emakume ta gizonetzko, geienak senar-emazteak, Bizkai zear Burgos, Palencia; Benavente'n bazkaldu ta arratsalde bero ortan, gaztelarrentzat bakarrik diran lurralde legor orreik laga ondoren, sartu gintzazan Galizi aldera, zugatzez apaindurik aurkitzen dan lurraldera.

Orense ta Pontevedra uriak pizkat ikusi ondoren Villa Garcia de Arosa'ko «Villa Nueva» itsas-bazterreko errizka apaiñera elduteko, apaldu ta lo egiteko orduan.

* * *

Urrengo goizean, Garillaren 24'n, urten gintzazan Kompostela'ko «Santiago»ra Jagoba deuna ikusi, bertako eleizkizunetan lekuko izan ondoren ikustatu ta bazkal-orduan Koruña'ra joateko.

Eleiz nagusi apaiñak ikusiak ba-gera be, Galizi'ko Jagoba deunarena, Konpostelakuak, ba-dau bere garrantzia, bai barru ta at, arri-landuz egiña eta ertitsua dalako.

Zetan esan be ez buruz-bide edo ekonomi aldetik, eleiz-nagusi edo katedralak eta Ikastetxe-nagusiak emon dautson nortasun-inguruan bizi dalako geien baten uri ospetsu ori.

* * *

Koruña uri zuri-zuriak be ba-dau beren zer-ikusia, batez be bere ur-golko (baia) zabalak eta bere iguruak, baiña une edo aldi geiagokin ikusiteko.

Gau-beranduz baiña barriz Arosa'ko «Villa Nueva»n gintzazan apalduta lotarako.

Urrengo goizian, barriz gintzazan bitxabalean berebil nagusi orretan, mutsti ederral-ikusiz. Pontevedra uri inguruan asita matsti ikusgarriak dira Vigo'ko erkirik geienian.

* * *

Eldu gintzazan La Toja izaro apaiñera, berari ikustaldi bat egin eta «Las Rias Bajas» arraintzale uria, beren urgolko zabala ta kaia pizkat ikustatu ondoren eta, ur-bazterrik urbazter Vigo'tik aurrera itsas-basterrean dagoan Bayona arraintzale uria baiña udalarientzat ondo gerturik dan orretara, bazkal-orduan bertan aurkitzeko.

* * *

Erri ortan gengoan aldian arretaz adi nengoan zertatik etorria izan leiteken erri orren euzkal-izena eta, Euzkadi'ko Baiona'ren antzik idoroten ba-neutsan.

Gure eretxi apalean Laburdi'ko Baiona'ren izena ba-leiteke Ibai-ona izenetik etorrirea.

Eta Galizi'ko Bayona orrek be ba-dau orretan gure Baiona'ren antza, inguru ortan asiten dalako Vigo'tik be aurrera sartzen dan ur-golko eta itsas-adar baretsua.

* * *

Bayona ortan berean, kai eder ta beste ikuskizun batzutatik gain, ur-golkoan bertan aurkitzen da Josu-Kisto baiño irurogeiren bat urte lenago sortutako «Monte Rey» izeneko gazteluri edo Guda-gaztelu zabal garrantzizko bat. Orain irureun urte barriztu ta gaurkotuko gaztelu ikusgarria.

Bayona'tik urten da, itsas-bazterrik baztar «La Guardia»'ko Tecla donea'ren mendieleizara eldu gintzazan, galiziarak ain maite daben mendi-gaillureko txadontxu apaiña ta beren inguruak ikustera.

Txadon onek eta mendi oneik ba-dabe aipatu-gari daben edestia, kondara eta, gure idazlantxu au, luzeegi ez egitearren beste idazki baten azalduko dogu bera eta Galizi'ren beste zertzelada jakingarri batzuk, gure ZER onetan lekurik emoten ba-dauskie.

Ordurarte-ba euzkera-irakurle maitia.

ALTUNA'tar Josu

“BIZKAI'KO FORUA”

Bizkaitarrok ta abertzale deitzen diran euskaldun guztiak irakurri bear genduke, Bizkai'ko Forua, edo Lege Zarra, 1981'gko urtean lenengo aldiz euskeraz argiratu jatorrizko aintziñako erdel izkuntzadunaz batera.

Liburu mardul eder onek 543 orrialde daukaz. Letra aunditan, apain, Graficas Ellakuria'k irarria.

Bidezko danez bizkaieraz dator, bizkaiera argi eta osoturako batutasun ederrean.

* * *

Bizkaierazko itzulpen irakurgarri ta aintzagarri, idazlan eder au, Gautegiz Arteaga'ko abade jaun agurgarri ta euskeltzale errimean dan Puxana Agirregabiria'tar Kepa'ri zor dautsagu.

Era berean zorretan gagoz baita erdel lege biurrien esangura illunak argitzen eta irartze-lanak aurrera eroaten alegindu ta bide onera ekarri dauan Erronkari'ko zaldun euskaldun dan Estornes-Lasa'tar Jose idazle ta legegizon jakitunari.

* * *

Azurtza idazle jaunak, gipuzkeraz, onelaxe idatzi eban Diario Vasco'n:

«Euskalerriko Legedi (legislación) zaarren artean, Bizkaikoak garrantzi aundia du. Gernika'ko Juntiak zuten garrantzia bezala.

Ez alperrik, gaur oraindik euskaldunok alkartzen gaituen oroi-men eta ezaugarrietako bat, Gernika'ko zugaitza dugu. Ez emen baizik, bai mendiz aruzko anaien artean ere.

Bizkai'ko Forua izeneko liburu ederrean, ordungo esakizun zaarretan legeak zeriotenez gaiñera, denbora zaarretako itzak zer esan nai zuten ere arkituko duzu.

Esate baterako «merinoak», «korregidoreak» «petxak» edo zer-

gak nola ziran, zenbatekoak, eta orrelako gure erriaren izate zaarra ezagutzeko bearrezko diran gauzak ikasiko dituzu».

* * *

Eta, idazle berak aurrerago diño: «Zenbait abertzalerentzat, baita ote Gabonetarako erregali obeagorik «Bizkai'ko Forua» baiño?

Ainbeste makilka darabilgun bizkaitarren euskereak merezi zuan orrelako liburu eder bat.

Euskera berriz, ederra, kontu aundiz idatzia, bizkaiera osotua esango nuke nik or Pujana jaunak darabilkian euskera ederra.

* * *

Benetan lan ederra da bai Puxana jaunak egindakoa.

Bera izan da Bizkai'ko Lege Zarra lenengo aldiz euskeratu ta plazaratu dauena gizaldietako lotsaria kenduz.

«ZER» aldizkarian Olazar'tar Martin idazle jatorrak idatzitako idazlanaren ataltxo bat dakart arira: «Oraintxe agertzen da lenengoz «Foru» au euskeraz.

Sinistu-eziñekoa da benetan, euskaldunok izan dogun erdal-zaletasuna. Zergaitik Bizkai'ko Batzarretan onartu ez, erdera ez dakianik? Ez ziran orretan gorabera makalak izan.

Zergaitik batzarretan erdera utsa erabilli, noizean bein gaia ondo ulertzeko euskeratu-bearra izan-arren?

Zergaitik batzar-agiri guztiak erderaz? Eta zergaitik LEGE ZARRA bera argiratu zanean, erdera utsean? Zergaitik asko, baiña erantzun egoki gitxi.

Ori ez da besterik gure nortasuna galtzeko euskaldunak artu genduan okerreko bide bat baiño.

Gaur zuzendu da apur bat okerreko bide ori. Gaurtik aurrera ezin esan gure legeak erdera utsean dagozanik. Puxana'ri es-

kerrak, Lege Zarra euskeraz daukagu».

* * *

Olazar jaunak Puxana'ren izte-gira begiratu, bearrezko ez diran erdel itz batzuk salatutzen dauz euskerazkoak izanik. Baita, «nork-nortzuk jokoan» «ek» erabiltearen aurkako eritxiak dager.

Baiña, zelan ez? Azkenean zintzokiro autortzen dau gure euskeratzallearen maixutasuna ta onela diño: «Eztabaida txikiak alde batera itzita barrero esan bearrean nago, Puxana'ren euskerea, eta liburu onetakoa batez be, euskera ederra, jatorra, garbia, ondo josia, egokia, berba baten esateko, benetako bizkaiera, bizkaiera apaindua, egokitu ta batua dala eta bizkaieran sakondu gura daberen guztiak ondo egingu dabe liburu eder au erosi ta irakurriaz».

* * *

S. Onaindia idazle ospetsu ta entzute aundikoak, «Deia», n, onela idatzi eban: «Ez yakon ain erreza izango euskeratzalleari ainbat erdal itz eta esaera biurri menderatzea, baiña Puxana'k orixe lortu dau, ulertzeko zaila zan gai bat ulert-errez biurtu. erdal

Beraz euskera ederrean idatzitako liburu mardularen orrialde-tan bai Foruaren eratzea dala-ta Batzarren Agiriak deritxon atalean ta gañontzeko beste zenbaite-tan IZTEGIAZ amaitzen dan azkenekoa, gauza berezi, jakingarri ta onuragarri asko aurkituko dozue asti apur bataz irakurri ezkeru.

Nik neure errian orduko batzarretako ordelaria zana dakart gogora: «eta Gautegiz'ko Elizatearen ordez Ozollo'ko Pedro». Ozollo'ko Pedro auts biurruko zan baiña, oraindik, Ozollo'ko auzunea bere armarridun etxe zarrax antxe dago...»

MUNIATEGI-TAR SABIN

LAUAXETA, OLERKARI

I

Gazterik il jakun —il eben— Lauaxeta. Esan daigun: Beste euskal olerkari asko lez, Errenderi, Zubigar, Eltzo, Lizardi, Loramendi, Tapia-Perurena eta abar. Eta au ezten zorrotz jaku biotz-muiñean: gitxi bait gara eusko-olerkari saillean, eta gitxi orreitatik asko bizitzaren egunsentian illak.

Alan be, izan ziren onein poesi-lana etzan urria, exkasa gertatu. Ilon lanak oraintxe be eder txukunenetakoak dira. Lauaxeta, besteak beste, olerkari bikaiña dogu. Bere bizitzaldi laburrean —32 urtekin il zan— lan txalogarria burutu euskun, bai olerkiz eta bai prosaz. Bere egunetan, oindiño gazte zalarik, ospe-laiño artean ibilli jakun goratu ta onez aipatua: idaz-lumea trebe be trebe erabilliz eta aberriaren aldeko itzaldi gartsuak or-emen oparo egiñez nausi.

Bizkaitar olerkari dogu Lauaxeta, lurralde jori onek poeta bizkor, sakon goi-argituak emona da-ta. Launikiz'en jaio zan berau 1905'an eta Gasteiz'en tiroz il eben 1937'an, 32 urtedun zala. Gaztetxotan, jesuita izan naita, Durango, Loiola eta Oña'n ikasi eban eliz-karreraren zati bat. Gero, Bilbo'ko «Euzkadi» egunerokoaren «Euskal Atala» zuzendu eban gerra aurreko urteetan, Orixe'k beronen eskuetan itxi bait eban atal orren zuzendaritza. Ez eban esku epeletan itxi...

Itz-lauz eta bertsoz zuzendu ta indartu ezezik, bere arnasaz diñot, berberak sorturiko lanez be apaindu euskun eguneroko ori; au da: ia egunero idatzi ta argitara eben zerbait berea zana, «Azalpenak» izenburuz batez be. Orduko gorabera ta izparrik urtenenak datoz bertan, sakon eta zentzunez moldatuak. Poesiz ez eban ainbesterik egin, baiña ba-daukaguz aren lumeak eskiñitako olerki politik asko be. «Arratsberan» idaztiaren antzeko ogei liburu egiñean egin opa zituan, bertso arin, txukun eta atsegingarri apainduta: bigarren libururako ainbat olako olerkitxo pinpirin agertzen dira «Euzkadi»-n «Izkiñuak» izenpean.

Lauaxeta'k poesi-liburu bi laga euskuzan argitaldurik: «Bide Barrijak» (1931) eta «Arrats-beran» (1935), gero be birritan beintzat, oso-sorik, argitaratuak. Poesitxorta eder bi dozuz, ordurarte ondutako olerkirik geienakaz osotuak.

Loiola'n ikasle zala asi zan olerkigintzan, eta Bilbo'ko «Jesus'en Biotzaren Deya» (1925) aldizkarian agertzen dira aren lenengo poesi-lanak. Geroago, 1930'an, Errenderi'n ospatzen da lenengo Olerti Eguna, Euskaltzaleak eritxon bazkunak eratua; an aurkeztu zan beste batzuen —Orixe, Lizardi, Tapia-Perurena, Enbeita, Loidi, Jakakortajarena, Zugasti, Arnozena, Jauregi, Labaien eta olakoen-artean Lauaxeta, Urkiaga'tar Estepan be; eta beronek jaso eban lensaria. Aitzol'entzat «Maitale

Kutuna», laukiztar olerkari bipillaren lana zan zein-gogoka artara eldu ziran lanetatik sarigarriena. Eta ber eskuratu eban zidarrezko aritz-abar dotorea.

II

Lauaxeta luzaro samar, bizkaitarrik ezer ez ba'geuko lez eta laukiztarra poeta kazkar ba'litz lez, ixil-zulo egotzia, botata euki izan dogu. Baiña gaur, zori one Antton Valverde ta beste batzui esker batez be, bala-baldabilkigu bere izena, eta aintzat artua aren poesi-indar ta balioa. Aren olerkiak aztertzen dabez gure gazteak kolektan eta ikasgu nagusietan, zelako gaiak, teknika, egitura, pentsakera ta abar darabiltzan. Oso ederra da, izan be, Lauaxeta'ren olerki-lana alderdi orreitatik begiratu aztertu ta barruko guna ateratzea. Ederra eta jakingarria.

Esan dogu; idazti bi itxi euskuzan Lauaxeta'k, bibe bertsozkoak. Lenengoari Aitzol'ek egin eutzon itzaurre olerkariaren lana goratuz. Poesiaren alderdi asko aztertuz, onela diño ezilkortasunaren erpiñera eltzean: «Gallurrera igotzeak ez ase olerkariaren lei illezkorra. Bizitza arazoak urduriturik dauka bere gogoa. Len, maita-gaiak biotzean min; orain adi-poesiak barnean garra piztu. Bertsozikotasuna biotzean so-dagi... Olerkari bikaiñenak ez ezkortasun-aiotsak entzun izan dituzte. Gure gazte onek e dei orren oiartzuna neurtitzetan dagerkigu».

Ez, Lauaxeta'k ez dau nai bere poesia ilterik. Izan d dilla ezilkor.

Ezilkortasun-garrez abesten ditu, beraz, berak maitateen ditun gauzak: Jainkoa, aberria, maitasuna, gureak, soak; gazte ta zarrak, lorak, errekek, laiñoak... Dana ezin kortu naiez. Orrelaxe-edo egin eban India'n R. Tagore'ekin.

Prantses-eskola zerbait jorik, olerti-uts zelai zear liburu ibilli jakun, eta Aitzol'ek diñotsa: «Nekeak ez dezala auz du; ain da galgarri bide ori». Eta Lauaxeta'k, asierako bide deari, bide barriai geiegi itsatsi ta lotu barik, joan zan aurrera, munduko olerkari askok lez erri-bidetik urratsak zuzendurik. «Arrats-beran» erritar bidez, lau ta eder, oso urtik dagoz. Eta ortik dakusgunez, erri-gaiak be ezilkort daikeguzanak dira.

Begoz emen adibide bi eta naiko ditugu euro Lauaxeta'ren poesi-guna noraiñokoa zan jakin dagigu. Eredu bata «Bide Barrijak» liburutik artua dozu, eta beste ta «Arrats-bera»-tik. Ez dira oberenak, baiña bai erreariñak. Edonok egiteko modukoak? Nik baietz ustiat olerki-sen pizkat eta beste goi-argi pitiñez lagundua izan nik beintzat.

Ona lenengotik «Liparra» deritxona. Lau ahapalako edo estrofakoa da. «Instante» esan nai dau eederaren Bertso-lerro bakotzak amabi silaba daukaz, etena dabe danak erdian, ots, 6/6. Errima, ostera, bikaña, aberats e

tinko; ez dago emen zalantzarik. Errima etzan eragozpen Lauaxeta'rentzat; beti, bere lan guztietan zaintzen dau, eta beti gizonki. Errimatik iges egitea, beraz, alperrena dala dirudi: ez pentsamentuak soilki, teknika be bear da pentsumentu eder eta biozkada eztiak, txukun jazteko. Olanxe egin euskun laukiztarrak. Edu onetan dabes.

«Zelai-orlegiko gentz-ziar emaro
odeixka zuriyan itzala digaro.
Olan eltzen yaku erijotz antzija;
gozartu dagigun larrosen eztiya».

Olerkariak, baiña, ez dau gura eriotzarik, lora arteko mosu leunak baiño. «Lora artian kutun ez yatzu mosu-ba?» diñotsa maiteari. Bai ezpanak alkartuz eizu barre, biar ez dakizu-ta, maitatuko garan... Gozartu liparra, ilkorrak gara-ta... «Aize-egatan dabil loren mosu-ikara». Azken-ahapaldia, onela:

«Odeixka itzal ori dabil zelaietan:
Zorijon aldijak zebeñ bijotzetan
ezilkortu, arren, —dirauskuba zarrak—.
Bai zera, bai zera! Laztandu larrosak!»

Antzera landuak daukazuz liburu ontako beste 41-ak be, olerkari eder eta gaillen bati dagokionez landuak onako zirrada gozoa izten dauskue barruan, dardarka geratzen dan zerbait, atsegingarri jakuna.

Neurri au ezta asko erabillia, baiña geroago Zaitegi'k berak be «Tori nire edontzia» neurri ortan eratu eban,

naiz-ta ez errima ezartzean. Bizkia'n ba-dira eliz-kanta zarrak neurri ortan datozenak. Zaldien laugaiña gogoratzen dabela antzeko neurriak diñosku Orixe'k.

Bigarretetik, irakur «Amaiur gaztelu baltza» deritxonetik lenengo zatiko lau ahapaldi oneik. Gaztelu au antxiña onezkero, Primo de Rivera'ren garaian jaso ta laster bonbaz lertua, oraintsu barriztatu dabe; ba-dau, ba, bere gorrantzia.

Amaiur gaztelu baltz ori,
—berreun gudari oro sumin—
zaintzen zaituen zaldun onak
Naparra alde egin dabe zin.

Izkillu gorritz zenbat gazte
bildur bako menditar lerden.
Eta orreik, Jatsu jaun orreik,
Jabier'eko zaldun guren.

Ikurrin bat —kate ta lili—
torre goitian zabal dago.
Bera salduko dauan semerik
mendi oneitan ezta jaio.

Amaiur'ko ate-zain orrek,
zidar-turutaz oi u egik.
Baztan-ibarran zenbat etsai,
arrotz gabe ez dago mendirik!

Labur: olerkari dogu Lauaxeta. Ezpai ta duda-muda barik, artista zangar, beti aurrera doakiguna.

AITA ONAINDIA

LOAPA'REKIN MINDUTA

*Euskalerriko sozialistak
ei dira zozo listuak,
Jel Alderdiren erabagiak
ei dira oso tontuak;
eurak ei dira estatualistak,
eta jeltzalle gaurkoak
ei dira guztiz estatutistak,
ona emen gure kontuak,
laster datozen auteskundetan,
nori emongo botuak?*

*Geure geuren maite dogu ta
guk ez daukagu aztuta,
sozialistak ein deuskuena
asarre biziz gomuta;
Estatutua ontzat artuta
gero azpitik sapuzka,
aurpegiz beti irribarreka*

*atzetik sagusaguka,
LOAPA'rekin egin dabenez
Euzkadi dago minduta.*

*Sozialisten jokabidea
aspalditik da ezagun,
portakizun bat ezin ohea
jeltzalleena edonun;
Euskalerriko oitura zarrak
berbiztu nairik gaur egun,
besteren ona ontzat artuta
geurea zaindu dagigun,
ikusi daiten erri danetan
euskal jokera, txapeldun.*

*Gizontasuna erakusteko
erarik egokiena,
emon dan itza aintzat artzea*

*bera zaindurik kemenaz;
eta ez uste izan sekula
jokabiderik onena,
politikan be izan leikenik
«Makiabelo»n naimena,
gaur besarkada ona emonaz
eta urrengoan eztena.*

*Gaur baietza ta biar ezetza
ezin giñeike on artu,
txarto egiña parkatu baña
eziñ lei ain errez aztu;
aurrerantzean kontuz ibilli
ez gagizen atzipetu,
oraiñ artean eztabaidetan
larregi dogu suñistu,
onegi izanaz eziñ giñeike
bear dan bestean lortu.*

LERTIBE

EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA ESPAÑI

Askotan egon gara Euskalerritik urrutiko lurraldeetara begira. Begira dagiogun, gaur, ain urbil dogun Espāñi zabalari.

Jaurlaritza sozialista baten asieran dago gaur Espāñi. Ez da arritzekoa sozialistek Espāñi'n ainbeste aurtarki irabazi izatea. Baiña Euskadi'n? Zer dala-ta, izan dauz Euskadi'n orrenbeste autarki PSOE espāñiarrak?

Au ez eban Euskadi'n iñor itxaroten. Ezta pesoetarrek ere! Ikus dagun zerk eman dautson gure artean PSOE'ri orren garaitza bizkorra.

* * *

PSOE'k irabazi dauzan autarkiak ez dira beste alderdiek galdu-tako autarkiak. PCE eta UCD izan ezik beste alderdi guztiek len baiño autarki geiago jaso bait dabez. Eta ucedetarrak ez dira noski PSOE'ra aldatu, eta PCE'k galdu dauzan autarkiak oso gutxi dira PSOE'ek irabazitakoen aldean. ¿Nondik orduan PSOE'ren garaitza?

Eusko komunist lenindar-maotar iraultzalariek egin dabent zabalkunde-era edo propaganda-modutik.

Bai adiskide: bere burua aber-tzaletzat agertzen daun baiña abertzale ez dan HB más EE al-

derdi komunist bikoitzak eman dautse Euskadi'n PSOE'ri ain uzta mardula.

* * *

Lengo auteskundeetan agertu ez zan jendeak eman dautsela PSOE'ri gurenda esan daskue izparringiek. Egia noski. Baiña ¿zergaitik joan dira jende oiek eraingoan sozialisteetara?

Jende ori, ia dana, gure artera kanpotik etorria dan eta emen pozik bizi dan jendea dogu. Euzkotar izan nai dabe, eta euzkotar egi-ten ba'dira emen onartuak izango dirala badakite. Berenez, zabal-kunde ero oker batek naasi ez baleuz, PNV'ri emango eutsoen autarkia. Egia da PSOE'tarrek ziri zikin bat sartu izan dautsoe, «maketoak dirala», «euskotarrok ez doguzala maite eta emendik bidali naiean gabiltzala», eta errelako okerkeriak esanaz. Baiña ez dautsee sinistu jende orrek, ori dana gezurra dala bait dakie.

* * *

Ez dau sinistu PNV atzerritik etorri yakuzan etsaia danik, baiña errez sinistu dau PNV langilledia-ren etsaia dala. Izan ere, ainbeste aldiz esan dabe HB'k eta EE'k auteskunde auen aurre-gertuketan, PNV kapitalesten alderdia dala»,

«PNV'tarrak burgesak dirala», «langilleen izarditik bizi dirala», «PNV langillediaren zanpatzalle dala»... Gau ta egun ori entzun ondorean, nori eman eikioen autarkia atzerritiko jende arrunt oiek?

Ez noski PNV'ri, langille batek langilleen etsaiei autarkia ematea burugabekeri aundia bait litzake! Ezta PCE'ri ere, langille oiek ez dira ba komunistak. Ez; Extremadura'tik, Andaluzi'tik, edo Gaztela Zarretik etorritako jende oiek ez dira komunistak. Askoz gutxiago dira komunist iraultzalari ertzakoi edo extremistak. Orregaitik ezin eikioen HB'ri edo EE'ri autarkirik eman, eusko-komunismo bakar baten bi zati oiek komunismoaren ertzarik gogorrenekoak dirala bait zekiten.

Nori eman, orduan, autarkia?

¿Fraga Iribarne oiulariari? Baiña langille batek Fraga'ri autarkiematerik pentsatu ere egin al daieke?

Nori ba?

PSOE'ri! Ez bait zan besterik gelditzen!

EE'ri eta HB'ri eskertu bear dautse, beraz, PSOE'k, Euskadi'n egin daun aurrerapen bizkorra.

LATIEGI'tar Bixente

BIDETIK AMESETAN

Izenburu onegaz ugatzaturiko libiruxka bategaz datorkigu Bidari (Zubiri tar Iñaki) olerkitzaren alorrera, euskal letratan ain ezaguna dogu «Galdu» txakur baten gorabeerak edestuten dabezan irakurgai edo nobela entzutetsuaren egillea. Beren bizi-aldi bateko ames urdin edo etsipenduakaz datorkigu bidetik amesetan. Neurtitz ezti, samur, biozgarriak. Ezin ukatu olerkari sena. Buru eta biotz. Irudia eta oldozkuna ondo alkartuz, irudimen bizi baten egotasun goitarrez, egokiro neurtutako poemakaz datorkigu adiñeko olerkari ezezagun, barri au. 41 olerki bikain edota eder, bizkaieraz idatziak. Bideko Zorroa'n, aberri-alde gudari joandako seme kutunaren ondorioz zoratutako ama errukarri baten aiene, intziri, eta negarrak; bere inguru-bidez beti nun eteka, beti itaunka dabillen ama gaiso batenak. Itaun dagitso aizeari, itaun itsasoari, itaun tantaiari:

«Ikusi ete dozu aizeño mea,
aspalditik joan yatan semea?

.....

Ikusi ete dozu itsaso zakarra
nire semearen urrats azkarra?

.....

Esan bide-ondoko tantai neurea
non dabillan joan yatan semea...

Dei ta dei darrai ama gaizoak itaunduz aize, itsaso
zakarra eta baita zelaiko loratxu ñabarri.

«Baiñan amaren naigabe larria,
gauan zear jaulkitako aldarria
erantzunik gabe geratzen dira...

Oi, biotz bakarti baten pilpira,
begi gorrien so kiskalgarria,
baretu eziñeko seme-egarria...!»

«Mutilla maite zuan eriotzak
biali eutsazan laztan otz-otzak;
bat untzatu yakon bekoki-erdian
eta, apa izoztuaren tokian,
lora baten odolezko tolesak
il ebazan gudariaren amesak».

«Negar darie tantai-loreari,
asperenak itsaso ta aizeari.
Amaren biotz eta begietan
miñak aldatu yakoz amesetan,
dei egiten dautsola semeari,
sena galdu bai'yako gaisoari».

Olerkariak, bizi-bizi dagerzku ama oñazetu, naigabe-
tu, laztan orren zorabidezko lauki egitiar au:

«Begi-zoro, kizkur, tximak aizean,
bidetik dabil taigabe usnean
ea dakien semearen barririk,
edo-ta ikusi ete izan dan iñondik
elaiak esan baidautso goizean,
ba-zala baserrirako bidean.

Poemari amaiera damotsazan neurtitzetan olerka-
riak ez kentzeko diño ama orren ames biziok:

«Aize me, tantai, itsaso zakarrak,
zelai-ertzeko loretxu ñabarrak
eta bidetik zoazen oinkariok

ez kendu ama orren ames biziok,
itxaropen zoroaren sukarrak
garaitzen bai'ditu biotz-negarrak...».

Sekulako izadi-zale dogu bai, olerkari ezti, ereskinsu eta lilluramentsu, goitiar ameslari au. Ederra dario bere olerkigintzari, batzutan geiegikeriz orraztu-arren ainbat olerki. Baiña gure izkuntza edo berbetea eder ta sakon eratu nai dabenak ba-du emen zer ikasi. «Orbelaren Eresia» derixon olerkian ikus edo daztatu daikegunez:

«Eroan nagizu egoko asperena —eriotzaz dodan deilekura— erauzi nagizu tantai ontatik —nire begira dagoan zerura—. —Jardazuz soiñean arrano-egoak— aboan urretxindor samurdura —ames egin daidan eguratsetik— ez baidot bakartasunaz il gura.

Barriro be, era ontan ots dagi olerkariak irudimen bizi-
ziz eskariak zuzenduz:

«Besarkada epelaz artu nagizu —erein neugan urru-
neko jorana— lurralde sorgingarririk zatozan —neure
gogo-biotzeko laztana—. Amesak dakarstazan izartxuak
—bart esautzan, ego-aize bakana— udagoiko bidetik eto-
rrela, su ta urrezko suzmurraz neugana.

«Uluka, aizearen putz indartsuak —(diño olerkaria-
k)— jarei naroa eguna jaiotzean, —zurrunbilloen beso sa-
murretan— beti gora zer oztian aratzean. —Urrezko ain-
tzan eguzkia dager— oatze gorritzatik jagitean, —gabeko
illeta-soiñua uxatuz—, basoa alaitzen dala argi-sor-
tzean».

Itzetik ortzera izadiatzko gogo-jantziz soiñekoturiko
joskera apain-dotorez darrai egalari beren amets joran-
tsuakaz bizitasun samurgarri bat emonaz neurtitzari:

«Ba'noa udazkenaren besoetan —sukarrezko amesak
baizen zoroa—, aizeari irrikan narraikiola —entzutearren
bere ipuin gozoa—. Egarrri naz aize maite-maite ori, —itzi
nagizu an beeko lats-ertzean, intzeko laztanakaz oztu
naiten— zidarrezko eresien artean».

Orbelaren Eresi eder au ain luzea danez guztia oso-
osorik ezin emonik beren amets-lillurazko izaditar oiart-
zun zoragarritz, amaitu nai dot geiago luzatu barik oler-
kariak beren izpidura ta laiñokoakaz, beren ibai ta iturri,
beren suzko iratxo, beren illargi ta tximeletañoiz, beren
urteak yoakozan neskatil begi baltzaran ta negargale ta
ainbat goiztiri ta illunabarrez atonduriko poema edo
ipuin au beren «udagoiko sorgindura garbian» emen ego-
kiro aztertzeko luzeegi izanik, beraz amaitzera noa azke-
na damotsan zortziko onegaz:

«Ego-aize margolari bikaiña
ur dabilkit bizitzaren azkena,
beragan sor daiten itxaropena.
Nigandik artuko dauan indarra
izango da lore baten sorpena,
ataletan adituko yakola
orbel alderraiaren asperena.

JAZOKIZUNAK

GARILLA

Euzko Jaurlaritzak egindako zenbaketan: ezkontza ta jaiotzak gitxitu dira ta eriotzak geitu.

Bermeo'ko literatura sariketa: Aita Santi'k l'engo saria; Augustin Zubikarai'k 2'hna ta gaiñerako 3 sariak, 3 Bermeotarrek irabazi ditue.

18.Etxenike'k, Derio'n 13, ikastaroa zabaldu. «Idatz-Mintz» literatur-sariketa-ren irabazle, 18 urtedun Miren Agur Meabe, «Biotzaren Nasara» eleberriagaz.

23.—«ESTATUTOA BAI, LOAPA EZ» agerraldi aundia Bilbo'n. 30'ean, Madril'n, Senaduak aldakuntza barik, LOAPA onartu. Gasteiz'en, Madril'go gobernuaren ordezkari barria, Jaime Mayor Oreja: osabea ala lobeia, ia zein dan ohea.

AGORRILLA - DAGONILLA

10.—J. M. Satrustegui'n euske-reak, Franco il ondorengo urte-

tan, guda osteko 40 urteetan baiño atzerakada aundiagoa egin dau. Etxenike'k: «Euskerari buruz ni, optimista naiz. Nafarroan ez; Nafarroan pesimista».

20.—Euskal idazleen egoera aldeztzeko «Euskal idazleen Elkar-tea aurkeztu Gipuzkoa'n.

28.—Erregeak, «Korteak» eze-reetea izenpetzen dau: Urriaren 28an, auteskundeak!

IRAILLA

Ameriketako euzkotarrak Bil-tzarra Euzkadi'n: «Euskaldun guztien etxean zaudete», DIÑO-TSE Pujana, Eusko Legebiltzarre-ko Lendakariak.

Aita Santua, Euskalerrira, Azaroaren 6'an: Loiola'ra, eberdian Xabier'era.

Euzko Jaurlaritzako Droga-De-pendentsia Sailleko arduradunak: Bizkaia, Araba, ta Gipuzkoa'n, 3'tik 2, drogaren menpeko. (?)

—Euzko Jaurlaritzaren oniritziz, «Euzkal Herriko Atlas» argitaratu «Erein»ek.

15.—Setien, Gotzaiak, 4 poliziarren ilketa ondoren: kristau kontzientziari eta giza-biotzari deia; olango ekintzak ontzat artzeko errazoirik ez.

—Bizkaieraz eta «grafia bateratuan» argitaldu dabe, umeentzako «Euskera Pausoak».

—Bizkaiko aditzaren erabilera onartua Euskaltzaindian.

—26, igandea: Alderdi - Eguna, Gazteiz'eko Salburua, egazkin-zelai zarrean; jai ederra, izugarritzko jendetza.

—Luis Iriondo, Euskal Telebis-taren zuzendari.

30.—Irailaren azkenean barri pozgarria. ETA (pm)VII ezereztend da. Taldeberak diñonez, luzaro ta ondo uste izan ondoren artu dau erabagi ori.

MAITENA'k

ARIMAK ETA ARIMAI DEBOZIOA

Nire erriko emakumeek, arima santuai (eurek deitzen deutseen lez) debozio ikaragarritzkoa deutsee. Beti, promesa gora ta agintzari bera ibiltzen dira. Ez emakumeak bakarrik, gizon arrantzaleak ere bai. Promesa-ostean, bazkari ederra jan eta gero etxera joaten dira.

Promesa ori, il bategaitik ba'da, orduan il orren arimeak promesa amaitu arte laguntzen ei dautse; orixe esaten dabe beintzat eurek. Adibidez: batek, San Juan Gazteluatxera promesa ba'dauka, atx-artean arima santua ikusiko dau promesa dauanak. Onek, illa aurrez-aurre datorrela, edo bere atzetik berari laguntzen ikusiko dau. Beste adiskideek, berari laguntzen doazenek ez dabe ikusten; baiña ark, olan esango deutse: «Begiratu, or sasi artean!» Edo, «antxe, atxetan dago; geuregana dator... Erreza daigun! Zelako arpegi larria dauko! Zenbat sufritzen dau! Etab...

Gero, eleizara sartzen diranean esango dau:

«Emen dago, nire ondoan dago, Koitxadiel!...»

Egun baten, emakume batek berari jazorikoa esan eustan: Bere ama ta aizta bat il jakozan. Ama oso ona zan, baiña aizezagaz ez zan ondo eroaten, ba aizta ori, gaiztoa zan eta beti aldarrika ibiltzen ei ziran. Egun baten, lo egoala, bere izena norbaitek deitu ebalu entzun eban: «MARIA!», iru bidar. «Itzartu egin nintzan eta neure ama irribarreka neuri begira ikusi neban, eta beragaz aizea: baiña arpegirik ez neutsan ikusten gorde egiten eban. Orduan konturatu nintzan, nire aizea parkamena eskatzen etorri zala eta bere arimeak, otoitza edo Meza Santua gura ebalu».

Ainbat ariñen, Mezak ataraten joan nintzan, eta promesaren bat egin barik egongo zala eta joan guñen San Antoniora, San Juanera, etab».

IZARO

QUMRAN'GO ESKU-IDAZKIAK

III GORAPEN-ABESTIA

²⁰Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,
bizitzan kutxatillan pitxia lez ezarri nenduzulako.

²¹Ni illobira jaurtiteko jarten eustezan lakio guz-
tien aurka
zeure babesaz estaldu nenduzulako.
Gizon oldartsuak nire biziaren aurka eraso egin
eben.

²²Baiña zeure Alkartasunak eusten eustan niri!
Areik, guzurti basatiak alakoak, Belial'en taldeak
alakoak, ez dakie ona ekarri nenduana Zeu izan zin-
tzazanik;
zure biozperatasunean Zeuk atarako nozula onik.
Izan be, Zeu zara nire oinkadak zuzentzen dozuza-
na.

²⁴Areik eraso egiten ba'dauste, Zeuk laketzen do-
zulako da.
Goragarri agertzen zara Zu
gaiztoak ondatzean,
neure alde erakusten dozu zure aal-izatea

²⁵Gizonen semeen aurrean.
Bai! Nire sendotasuna zeure errukian datza.
Nik auxe esan neban: Azartiak nire aurka euren tal-
deak eratuarren

²⁶eta ni euren gudu-tramankulu guztien bidez in-
guratuarren;
euren dardaiak eta lantzen garra —zugatzak iruntsi-
ten dauzan sua— eten bagarik jaurtiarren;
euren deadarren zaratotsa

²⁷ekaitz-erdian itsas-aundien dunbotsa lakoa,
uriola lakoa, gizatalde bat ondatzeko gai dan
eramaitza ondatzaillea lakoa ba'litz be,
ez nintzake arduratuko.

²⁸Izarretaraiño jasoten dabez euren ago-zabalta-
suna ta arropuzkeria
euren egintza ezin-txarragoak burutzeko asmoa ar-
tzen dabenean.
Ni, ostera, nire biotza ura lez jarten zan artean,
nire arimea zeure Alkartasunean sendotzen zan.

²⁹Sarea zabaldu izan eusten:
euren oiña izan daitela bertan jausi daitena!
Lakioak jarri ebezan niri oratzeko:
euretan izan daitezala arrapatuak!
Nire oiñak zure bide-zidorrean sendo iraun eban.

³⁰Zeure izena bedeinkatuko dot, beronen batzal-
ditik urrun be.

IV GORAPEN-ABESTIA

³¹Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,
zure begirakunean neugan jarri zendualako
eta guzurraren adierazleen suminkeriaren aurka ba-
bestu nenduzulako,

³²baita iruzurti-taldearen aurka be.
Zeuk atara zenduan onik gaisoaren bizia,
areik illerazoteko asmotan ziarduen gaisoa,

³³arek zure serbitzaritzan eskiñi eban odola isuri-
rik,
baiña ez ekien nire oinkadak Zeuk zuzentzen zen-
duzanik.

³⁴Areik, marrokeria billatzen dabenean guztien agoz,
destaiñera ta gerenera jaurtiko nabe.

³⁵Zeuk, ene Jainko!, Zeuk lagundu zenduan gai-
soa,

³⁶indartsu egin zenduan makala aaltsuaren aur-
ka.
Zeuk askatu nenduzun aaltsuen aurka;

³⁷arein irain-gai nintzala, ez zenduan laketu nik
adorea galtzerik.

³⁸Azalutsen maltzurkeria ez zan naikoa izan
nik zure serbitzaritza bertan-beera izteko.
Arein marrokeriak ez eben nire iraupena okertu,

³⁹ezta arein arinkeriak be nire biotzeko jakituria.

KEREXETA

GAI LABURRAK

DOMEKAN, ALA DOMEKAZ?

Gaur eguneko idazle bizkaitar batzuek, erriak ondo ta egoki banantzen dauzan era bi naastu egiten dabez, edo obeto esan, era *bakarra* darabille, obeto dalakotan-edo.

Bat da *gabez* esatea, erderazko «de noche» (concepto general), eta beste bat *gabean* esatea, «a la noche» (concepto más concreto); Azkue'k diñonez: «*astelenez* il zan, murió por lunes, un lunes, y *astelenean* il zan, murió (en) el lunes (un lunes ya más determinado)». (*Morfología Vasca*, 168 orri.).

Urte batzuk geroago, gai au azaltzean, bere *Gipuzkera Osotua*'n, auxe dakar (41 orri.): «*Astelenez* significa un lunes en general y *astelenean* un lunes determinado, como decimos también *domekaz* o *igandez* yoango gara, en un domingo indeterminado, y datorren *domekan* o *igandean* en el próximo domingo. Por esta razón la frase (de la Morfología Vasca,

pág. 168), sería tal vez más exacta diciendo: «los vascos orientales se valen NO tan propiamente».

Beste adibide batzuk: a) Aurtengo garizuman, udan, neguan..., eguraldi onak izan doguz. b) Garizumaz, udaz, neguz, egunes, gabez..., berbaldiak entzuten doguz. a) Bediaga igazko Gabon-gabean il zan. b) Gabon-gabez edo gabaz abestu egiten dogu apartan.

Beraz, «egun baten, Joan etorri zan» esan bearrean —Bizkaia'n esaten dogunez—, obeto egongo litzake «egun batez».

Elizan be entzun dausat abade bati edo besteri oben ori esaten: «Datorren domekaz, auxe ta auxe izango dogu eliza onetan»; baiña euren errietan ikasita ez, eurak irakurri dabenetatik itsasita baiño.

Amaitzeko, ez dot uste bizkaitar jatorrek «datorren domekaz» esaten dauanik, «datorren domekan» baiño.

“ONETAKO” ETA “GAGOZALA”

Altarako Liburua gertatzen diarduela entzun dogu, eta urten eziñik dabillega, seingintza luzean. «Zesare» egingo ete-dautsoeneko zurrumurrua be zabaldu da Bermeo ta ingurutako errialdeetan.

Burubide txiki bi egingo neuskie liburu orren euskeratzaillai:

a) *Gure Aita* otoitzean, musikaz datorren tokian, «egun *ontako* ogia» ekarri bearrean, «egun *onetako* ogia» jarri dagiela, bizkaierari dagokionez. Gauza gatxa ori? Bai zera!, ezta musika gutxi be gutxi dakianarentzat be. Zelan? Beste zati batzuetan egin danez: nota *bat* geitu: *fa-fa-sol* egin bearrean, *fa-fa-sol* egin.

Zegaitik eta zetarako erabiliko dogu, ba, guk bizkaitarra ez dan «ontako» itsusi ori? Guztiok dakigunez, bizkaieraz *onetako*, *orretako* ta *aretako* (*atako*) da, eta gipuzkeraz *ontako*, *ortako* ta *artako*. Baiña gai onetan, *batua*-zaleak eurak be Azkue'ren eritzia onartu dabe: «Entre etxe *ontan*, *ontatik* *ontara* —eta *ontako* be bardin— del G[ipuzkoano] y tros dialectos, y etxe *onetan*, *onetatik*, *onetara* —eta *oneta*— del B[izkaino], creo que las últimas son más ajustadas al espíritu de la lengua». (*Morfología Vasca*, 308 orri.).

Adibide bat edo beste: «XXgarren mende *honetako* euskara...» (*Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 260 orri.). «Zinetako gizakirik, pertsonarik, ere ez da poema *horretan*...» (id., 263 orri.).

Beste orrenbeste egizue, arren, Meza-erdiko «guztiok ontatik» berbai buruz be, «guztiok onetatik» jarriaz: *mi-fa-sol-fa-mi-re* jarri bearrean, *mi-fa-sol-SOL-fa-mi-re* egin.

Ontan, *ontako* ta abar itzi daiguzan olerkietarako: silaba bat gutxiago dauken ezker, bertsoa osotzeko geienetan egokiago etorten dira-ta.

Eta b) *Gure Aita*'ren ostein datorren otoitzaren azkenean, *gaozala* adizkera «super-itsusia» jarri eben, otoitz ori abestu bear danetarako. Puxana jaunak illabetean jardun eban, urrean, antxiñako ta oraintsuko liburu zaarrak eta barriak arakatzen, baiña ez eban era ori iñon idoro. Gipuzkoarrak *gaudela* jarri ebelako —iru silabako itza—, bizkaitarrak be iru silabakoa jarri bear: *gao-za-la*, iñon agertzen ez dan eraz. Baiña or, ba: *ao* ez da diptongo, *au* ba-danez. Beraz, bardin-bardin izango zan *gagozala* jarrea.

Beraz, oker ori —*onetako* berbea lez— erraza be erraza da zuzen jarrea: *gagozala* itzari nota *bat* geiago ezarri: *la-fa-sol* jarri bearrean, *la-la-fa-sol* egin.

Bilbo'ko Erri-irratiz Mezea emoten dabenean, Ondarroa'ko abadeak be *gagozala*, bizkaierazko era jatorra, erabilten dabe (eta beti-beti erabilten ez ba'dabe be, erabili daikee, *rock and rock* talde-arteko musikalaria ez dira-ta).

KEREXETA

LIBANO'N ZER?

Agur: Txapela kendu, txaloak jo eta goratzarreak abestutera natorkizue. ZER orrek ba-dau alako zer bat. Ba-dator bertan zer irakurri ta nun ikasi. Danen aukera bete leike orrialde oreitan, ez bakarrik idazlan sakon ala ariñetan, edo itz-neurtuz ala lauz egin-dakoetan, baita astia lasai emon eta euskera landu egiteko Gorri'k illero eskeintzen dauskuzan ikusimakusiekaz be. Ea ba, ekin zuok Bizkaitarren jakin-naia bizkaieraz bete-erazten.

Sarrera lez esan dautsuedazanak esanda gero, ZER'ek Irailla-ko zenbakian izenpetu bagarik dakarren LIBANO idazlanari buruz jardunalditxo bat egin gura neunke labur-labur bada be. Idazlan ori «Latiegi'tar Bixente'rena da (Idazkolakoak).

* * *

Alan eta be, neuk neuretara zeaztasun batzuk ezarriko neuntsakez jakingarri asko dakarzan idazlanari.

Kristauak Libano'n bertan erdia baño geixeago dirala esatera ez nintzake ausartuko, ez dalako iñoiz izen-errolarik jaso, eta gañera, ezin leikealako jaso egin be. Libano'k prantzezengandik askatasuna lortu ebanean, itxura utsez Marondarrei, kristauen artean oneik diranez jaun eta jabe, nagusitza emon eutsen, eta urte azkennerarte nagusitza ori egizko ta legezko lez artua izan da. Marondarrak Libano'n bertan baño kanpoan beste alderdi guztien aldean geiagoak dirala esango neunke ez-bai barik. Orregaitik Libano'tik kanpora Libandar eta Marondar bardin samarrak dirala esan geinke.

* * *

Libano deritxonak urte askotan bakean biziteko era euki ebala esan bearko dogu, baño bake ori bada-ezpadakoa zala be autortu bear da. Bakea baño orkonpon egoeraren itxura emoten eban. Al-

derdi bakotzak bereari begiratu-ten eutson, eta Marondarrak, aberatsenak eta ikasienak izanez, iñok baño geiago. Eurenarrak jasoten ziran —edo jasoten ebezan— dirua egoan tokietara, eta bertan patrikarak esku bigaz bete. Ikustekoa da izan be sortaldean senidetasunak daukan tengada. Ondo jarrita dagon senideak niko ezagunentzat lanbide edo sari-bide bat ala beste aurkitu bearreran dago, bide batez Jaurlaritzaren lepotik bapo bizi-az. Alako bizimodu erreza ta alaia!

* * *

Danak etziran pozik izango olako eskupeko lapurretakaz, baño, tira, laster erakusten eutsen urtera bizkor bat: tiroz iltea. Amaiera ori aurkitzea ez jaken gauza zailla izango. Libandar guztiak antxiñatik pistola edo suizkillu baten jabe izan dira beti, eta ez esku-motzak ain zuzen be. Ortik gañera, izlilludunok talde-tan batzen ziran, gudarozte bereziak osotuz. Orregaitik orduko Libano'k euki eban bakeari «bake armatua» deituko neunskio.

Gure Marondarrak —euren Patriarka deritxonak eta eliz-gizon Nagusiak batez be— egiz Libano'ko Lendakari, Jaurlaritza ta Lege-Batzarra ziran batera, legez beste batzuk izan da be. Emen, gure artean, noizbaiten ikusi izan zan elizagintaritzaren indarra Libano'koaren alboan eskola-mutillen antzeko eskubidea zala dirudi.

* * *

Libano'n abadeak, prailleak eta mojak batez be, ondo «kolokata» eukezan edonun euren senideak, ezagunak edo adiskideak. Baimenak-eta aukeran lortzen ebezan. Egazkin-Zelaietan be ba-eukezan nork lagundu kanpoan erositako tresnak-eta zergak ordaindu barik etxeratze. A zan a nasai ta ederto bizitea!

Aldakuntza sakona bear zala otu jaken Marondarrak etzi-

ranei. Baña banatuta ta zatituta egozanez, eta gañera burukide trebe bagarik, ordurarte baketsu samar agiri ziran Palestindarrak anaiei laguntza-eske atejoka joan ziran. «Anaiak» izanez, Palestindarrak laguntza ori esku zabalez emon eutsen.

* * *

Orduan ikusi bai zala ainbeste urtetan ezkutuan egoan benetako Libano. Ango alkar-ilketak eta edozelako triskantzak! Orduan bai ikusi ebezela Marondarrak euren seme-alabak, elizak, eskolak eta etxeak zearo ondatuta.

Bitartean Siria sartu zan Libano'n barruko arerioen tartean olan edo alan gauzak konpontzeko azmoaz. Geroago Siritarren eta Marondarren artean artuemonak garrastu egin ba-ziran be, orduan beintzat kristau geienak Siria'ko gudaroztearen bitartekotasunari txaloak jo ta lorak jaurti egin eutsoezan.

* * *

Israel'ek berak itxuraz ez eutson eragozpenik jarri Siria'ren esku-sartze oneri, eta orrela lortutako bake-erdiak urte labur batzuetan iraun eban.

Israel beti izango da saltzan sartzeko prest, batez be Palestindarrak leoiaren buztenari txitxi-murka asten diranean. Israeldarrak beti izan dabez adiskide goiko Marondarrak eta bata bestien laguntzaz Libano'ko eta Israel'go auziak betirako konpontzekotan ibilli dira. Israeldarrok azkenez euren asmoa lortu ebela zirudianean, or nun euren lagun andia zan Marondarren buru Bashir Gemayel ilda jausi dala, Libano'ko Lendakari barri lez izendatuta gero. Palestindarrak, nai-ta Libano galdu, ez dabe kuku joko, ezta Israeldarrak euren partez be. Ango auzi orreik konponketarik ez daukela dirudi.

JOSEBA ZUBIKARAI

UME BATEN ESKARIA

Kaleak argitan dagoz,
dendak jostailuz beteak,
baiña ni Yosu maitia
itoten nau naigabeak.
Aspaldiz bakarrik nozu
galduta bizi-adoreak,
gure etxea isillik dago
joan dirala barreak.
Emon zeustan anaitxua
geisorik dago oe txikian
ezagutzen ez nauala
bere ondoan nagonean.
Begiak itxita ditu
buruko zuri ganean,

ames larriak artuta
zoro biurtu bai'litzan.

Zure Jaiotza ospatzen da
erri ta lur guztietan,
jostailu asko ikusten dala
umeen etxe alaietan.
Zaldi eder bat ikusi dot
aspaldi ontanko amesetan,
baiña orain ez dot ezer nai
nagon kezka bizieta.


Ez dot jostailurik bear
Yosutxu maite-maitia,
bera bakarrik gura dot

nire anai kutun txikia.
Etxeko poztasuna da,
alaitzen gaitun txoria,
nirekin jolastu ezean
ez niri ekarri zaldia.

Ama negarretan dakust
aita naigabe bizian,
etxea itzaletan dago
jaio zaran egunian.
Zorion amaibakoa
nagusitzen da ludian,
osatuizu nire anaia
neugaz jolastu dagian!...

ZUBIRI'TAR IÑAKI
(BIDETIK AMESETAN)

27.^a ERANTZUNA




Corri

EZKERRETIK ESKUIRA

1. Tierra, mundo (el). Patriota.
2. Ahi. Tú mismo.
3. Nosotros. En la boca.
4. Abundante.
5. Adecuado. Verano.
6. Nosotros. Fragmento.
7. A ver si. Empeñarse.
8. Natural de. Aquel.
9. Verdad. Querer, apropiarse.
10. Que tiene defectos, imperfecto.
11. Espacio, oportunidad.
12. De ninguna manera.
13. Eje.
14. No. Sois. Riada.
15. Culebra. Nombrado.

28.^a



Corri

GOITIK BERA

1. Vergonzoso. Huida, huir.
2. Tú.
3. Lo hemos o tenemos. A juicio de. Tabla.
4. Tres. Ala. Menudo.
5. Septiembre.
6. Así pues. Varón.

7. Puerto (el). Deseo.
8. Adecuar, adaptar. Llamamiento.
9. Cuba, tonel.
10. Estiramiento. Así, de esta manera.
11. Tú. Ayuntamiento. De pie.
12. Diminutivo de zu.
13. Clueca, suelto (el). Diario.
14. Helecho.
15. Cantero, albañil. Bastar.

ZUBIRI'TAR IÑAKI'RI ZORIONA!

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren Zuzendari dogun ZUBIRI'TAR IÑAKI J.^ak olerki-saria eskuratu dau ospetsua dan Larra'ko Olerki-Egunean.

Ezagutu ta aztertu genduan Iñaki Eleberrigille lez, Galdu Txakurra argitaratu ebanean, baiña ez genkian olerkaria zanik. Zoriona zuri, biotzez, ZER'en eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izenean, Iñaki.

* * *

Iñaki'k lenengo saria atera dausku; bigarrena, Olerki-Eresi edo Poema-saillekoa Beloki'tar Agustin'ek eta irugarrena, bertsolaritza-saillean Erkiaga'tar Eusebio'k.

Ba-dira idazleak eta olerkariak euskalerrian! Idatzi begie!

* * *

Gure Iñaki'k, BIDARI izen-ordeaz liburu txukuna aurkeztu dau Larra'ra, BIDETIK AMESETAN idazpuru dauala.

Ez da liburu irarria, argazki-bidez eta polito batua baiño, irakurteko irarkolakoak baizen argia edo argi-agoa.

Berrogei ta bat olerki dira guztiz, 95 orial detan banatuak.

* * *

ZER onen 16n. orrialdean ikusi daiteke berak bere liburu orren 85n.'ean dakarren olerki polita: UME BATEN ESKARIA. Emen bai ikusten dodala olermena ta trebetasuna, gaurko olerkarietan ain urri agiri diran gauzak!

Lau aapaldi ditu olerkitxu onek: 1.^a Poza ta naigabea Josu'ren aurrean, baiña zergaitik agertu barik. 2.^a Samintasunaren edo naigabearen iturria leunkiro agertzen da. 3.^a Naigabe orren aurrez Josu'ren jaiotza-poza munduan.eta 4.^a gaia oso-osoan askatzeko, umearen eskaria argi-argi.

Ez dau iñok ukatuko or dagoan olerkari-trebetasuna.

* * *

Neurria begiratu ezker, bertsoak zeatz neurtuak dira, «ripio» barik eta azken bardiñak be dunduri egokidunak eta zeatzak.

Barru-miña izatez bizi-bizia da eta irudi egokien bidez egokiro agertua.

Beste idaz-lanen baten gai au zeatzago aztertuko dogu.

* * *

Zoriona, Iñaki! Euskalerraren olermena nok artzen dauan ba-dakigu!

OLAZAR'tar Martin'ek

ANTON'EN IGUIÑA

Gure irakurleak ondo dakie gure Anton Landajuela zerk iguintzen eban geien: Ganorabako euskerea irakurteak!

Eta olako ganorabakokeriak irakurten ebazanean ZER'en argitaratzen ebazan, aurkazko eredugarri izan zeitekezan.

Ona emen berak batu eban esaldi baragarri bat. Beioa eriotz-osteko omenaldi lez:

«BILBO-PLENTZIAKO LINEARAKO 18 UNITATE-TREN ELEKTRIKO ADJUDIKATZEKO» Administrazio-Kontseilluak izenpetuta.

EUSKERAZALEAK

VIZAR

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia